

Bazen behin mundu erraldoi bat Berdintasun izenekoa. Mundu horretan guztiak zoriontsu bizi ziren eta nahiz eta inor ez perfektua izan errespetatu egiten zuten elkar. Orain neskak eta mutilak desberdinak garen bezala, han ere bi eratako pertsonak bizi ziren: bihoztarrak eta tigrearrak ziren. Bihoztarrek burua bihotz itxurakoa zuten eta oso zintzoak ziren. Tigrearrek ile asko zuten eta tigreen antzera ibiltzen ziren eta hauek ere zintzoak ziren baina ez bihoztarrak bezain zintzoak.

Egun batean Big Bang izeneko eztanda bat gertatu zen Berdintasun mundua bi zatitan banatu zuena. Planeta batera bihoztarrak joan zirenez, planetari Bihoztar izena jarri zioten. Beste planetara, berriz, tigrearrak joan ziren eta Tigrear izena jarri zioten planetari. Tigrearrak nahigabe, eztandaren ondorioz, erabat gaiztotu ziren eta ez zuten zintzo izateko pentsamendurik ere. Bihoztarren nagusiak Tuak izena zuen, baina denek Tuka deitzen zioten. Beren gisa, kontuan harturik hori orain dela milioika urte gertaturikoa dela, marrazkiak egiten ikasi zuten eta orri batean egin beharrean, ormetan egiten zituzten marrazkiak. Pentsatuko duzue asko ehizatzeke egingo zituztela, baina ez da horrela. Beraien marrazkiak jainkoari maitasuna erakusteko eta tigrearrak gerrarik ez egiteko asmatu zituzten:



Horregatik, orain ere maitasuna adierazterakoan irudi berbera erabiltzen dugu. Tigrearren nagusia Perfek zen, tigrear guztietatik gaiztoena zen eta beti ere gerrarako prest zegoen. Hauek ez zuten marrazkiak asmatzen denborarik galtzen. Gerrarako armak egiten eta zorrozten pasatzen zuten euren bizitza eta horrela disfrutatu ere. Tukak bere biztanle maitakorrak bildu zituen Goxoenea mendian eta gauza garrantzitsu bat esan zien bertako biztanleei:

- Eskerrak eman behar dizkizuet planeta zoragarri hau sortzen laguntzeagatik eta beste alde batetik ere zuen laguntza behar dut. Tigrearrak eta, batez ere, beren nagusia Perfek beti gerrarako prest dago eta horrela ezin dugu jarraitu. Irtenbideren bat aurkitu behar diogu arazo honi eta irtenbidea aurkitzen duena saritua izango da Jainkoaren maitasunarekin.

Egun horietan ez zen beste zurrumurrurik egon bihoztar guztien artean. Tigrearrak gora eta tigrearrak behera denbora guztian, ez zuten beste ezertaz hitz egiten.

Negua iristen ari zen eta oraindik ez zuten arazo haren konponbiderik. Bihoztarrek negua pasatzeko janari asko bildua zuten eta tigrearrek ordea ez. Bihoztarrek lan asko egiten zuten, horregatik, fruta-arbola eta baratze asko zituzten baina, negua iristean zuhaitz guztiak erori egingo ziren eta baratze guztia desegin. Janari nahikoa bazuten baina ez zekiten non pasako zuten negu guztia.

Tigrearrek arazo handiagoa zuten ez zuten janaririk ezta negua pasatzeko lekurik ere.

Bat-batean Madelein izeneko bihoztar burutsu bati tigrearrak nola zintzotu eta negua nola pasa bururatu zitzaion eta era polit batean gainera. Tigrearren eta bihoztarren planeten artean bazen izar bat orain dela urte asko argia galdu zuena eta bakar-bakarrik zegoena.

Izar horretan bazen liburu magiko bat. Liburu hori astinduz gero jeinu bat aterako zen eta eskari bat eskatu ahal izango zioten. Madeleinen planaren arabera izar hartan bizitzeko etxe erraldoi bat eskatuko zioten jeinuari eta hortik asmatuko zuen tigrearren zintzotasuna berreskuratzeko plana. Madelein Tukaren lagun mina zen eta bi aldiz pentsatu gabe Tukari kontatu zion bere plana. Tukari ideia ezin hobea iruditu zitzaion, baina oztopo bat zegoen. Nola eramango zituzten Perfek eta beste tigrear gerlariak izar argigabera ? Baina hori ez zen oztopo Madeleinentzat. Hori guztia pentsatua zuen eta honelaxe esan zien Madeleinek bihoztar maitakor guztiei:

- Gutako bat Tigrear planetara joango da eta beraien artean izar argigabeen altxor izugarri bat dagoela zabalduko du. Perfek nagusiak ez du diruan besterik pentsatzen eta esandako guztia sinestuko du barru-barruraino. Badakit guk ez dugula gezurrik esaten, baina Jainkoak barkatuko digu jakitean, tigrearren onerako dela. Ba al dago boluntariorik Tigrear planetara joateko?
- Bai, ni prest nago Tigrear planetara joateko. Ni Angel naiz eta gustoko dut beste planetetara bidaiatzea. Gustura egingo nuke lantxo hori.
- Zuk hala nahi baduzu aurrera. Beste guztiok joan zaitezte zuen gauzak prestatzen negua pasatzeko. Hauek dira negua pasa ahal izateko beharko dituzuen gauzak: eskularruak, bufandak, linterna, berokiak, marmelada, txokolatea, fruta, barazkiak eta, ahaztu gabe, zuen bihotz ona. Esandakoarekin ondo bizi ahalko gara. Orain zubi erraldoi bat egiten lagundu beharko didazue hemendik tigrearren planetaraino.

Guztiak egurrak biltzen hasi ziren. Trebeenak egurrak sokeaz lotuz zubia egiten hasi ziren. Azkenean bukatu zuten zubi erraldoi hura. Angel gerlariaz jantzi zen tigrearrek beretakoa zela pentsatzeko eta hor abiatu zen beste bihoztar guztiek beren gauzak prestatzen zituzten bitartean. Astebete geroago Angel itzuli egin zen eta berri oso onekin. Perfek nagusiak guztia sinestu zuen eta jada gauzak prestatzen hasi ziren tigrear guztiak. Bihoztarrek lehenago iritsi behar zuten izar argigabe eta bakartira eta horretarako beren marrazkietako bihotza egin zuten egurrez eta metalez. Gero, marmelada eta txokolate bero pixka bat bota zioten erregai gisa eta oso handia zenez bihoztar guztiak sartu ziren bihotz barrura. Berehala iritsi ziren eta Perfek eta bere gerlari tigrearrak baino lehenago.

Denborarik galdu gabe liburua aurkitzen hasi ziren eta horretarako beren linterna erabili zuten. Izarraren basoetan zehar bilatzen aritu ziren baina alferrik izan zen, ez baitzuten inon aurkitu. Bat-batean trikuharri bat ikusi zuten eta

bertaraino joan ziren ea han zegoen ikustera eta halaxe izan zen. Trikuharrira iritsi zirenean han inguruan begiratzen aritu ziren eta bat-batean Tukak harri baten azpian begiratu zuen eta hantxe aurkitu ere. Tukak liburu magikoa astindu zuen lehenbailen eta jeinu ikaragarri bat atera zen txakur itxurakoa. Momentu horretan jeinua bainuontzian zegoen lasai asko bainatzen bere ahatetxoekin eta jostailuekin eta hori gutxi balitz gainera lotan. Oihu egin zioten bihoztarrek eta azkenean esnatu zen. Hauxe esan zuen:

- Zein izan da lotsagabea nire siestatik esnatzen ausartu dena ?
- Neu izan naiz jeinu zoragarri hori.- esan zuen Tukak – Mesedez, beteko al zenuke gure desio bat?
- Zure desioak agindu dira niretzat andereño.
- Orduan, etxe erraldoi bat eskatuko nizuke hemen izar argigabeen.
- Hori egina dago panpoxa. Baga, biga, higa, laga, boga, sega, sai, soi, bele, arma tiro pun! Ikilimikiliklik errena plat olio zopa ikili salda urrun edan edo klik etxe erraldoia hemen ezarri. Hemen duzu zure etxea ondo pasa!
- Eskerrik asko jauna. Asko eskertzen dizugu.

Horrela urrundu ziren liburutik eta beren etxe erraldoira joan ziren. Berehala tigreararak etorri ziren altxorraren bila eta bat-batean liburuko jeinuarekin aurkitu ziren. Jeinuak ezin zuela beste gurarik bete esan zion baina hala ere Perfek nagusiaren galderari erantzuteko baimena zuela esan zion eta hau zen galdera:

- Ba al dago altxor preziaturik izar argigabe ziztrin honetan?
- Ez jauna, nik izar honi buruzko dena dakit eta benetan diotsut ez dagoela altxor preziaturik izar honetan.

Orduan Perfek konturatu zen norbaitek ziria sartzen ari zitzaiola eta ez zitzaion batere gustatu. Halako batean gerlari batek hauxe esan zuen:

- Hausnartzen aritu naiz eta azkenean, erantzun bat eman izan ahal diot nire galderari. Altxorraren berria ematera etorri zen gerlariari ez zitzaion gerlarien kaskoa sartzen eta benetan arraroa iruditu zitzaidana zen bere buruaren bihotz forma. Oraintxe konturatu naiz berria ematera etorri zena ez zela gutarikoa baizik eta bihoztarra. Hori gu honaino etortzeko amarru bat izan da jauna.
- Seguru bazaude esaten duzunaz, ahalik eta bizkorren aurkitu behar ditugu bihoztar zikin horiek. Oraintxe ikusiko dute zein den Perfek nagusia.

Tigreararak zuzen-zuzen abiatu ziren bihoztarregana. Bidea oso luzea zen eta ez zeukaten maparik ezta nondik joan behar zuten ideiarik ere. Bidean zehar, laku bat ikusi zuten baina, zoritxarrez oso txikia zen eta hango ura ez zen iritsiko ezta berrogeita hamar pertsonentzako ere. Zegoen guztia hartu zuten baita zuhaitzetako kokoak ere. Pixkanaka-pixkanaka urik eta janaririk gabe geratzen hasi ziren eta oraindik oso bide luzea falta zitzaien egiteko. Hain gaiztoak zirenez beren artean ere ez zen giro. Beren artean borrokatzen hasi bezain laster buruan zeramatzaten ur-ontziak erori zitzaizkien eta orduan bai geratu zirela ezer gabe. Bidearen erdian zeudela, zulo ikaragarri bat topatu zuten eta ez zegoen beste pasabiderik hura baino. Beraietako batek bi aldiz pentsatu gabe salto egin zuen eta zorionez ez zitzaion ezer txarrik gertatu. Beste bat ordea burutsuagoa izan zen eta makil luze bat hartu zuen. Atzera joan zen eta bat-batean korrika hasi zen,

makila lurrean ezarri zuen eta salto izugarria eman ez beste alderaino iritsi zen. Beste guztiek ere tigrear burutsu hark egindakoa egin zuten. Arraroa badirudi ere hortik dator pertiga saltoko kirola. Kilometro bakarra falta zitzaienean elurra hasi zuen eta horren ondorioz ez zuten ezer ikusten. Galduak sentitzen ziren, ez zuten elur maruta besterik ikusten. Perfek nagusia elurrarekin irristatu egin zen eta erori egin zen eta aurrea zihoanez atzean zeuden guztiak ere erori egin ziren. Momentu hartan gauza bitxi bat gertatu zen eta ba al dakizue zer zen? Kolpearen ondorioz, buruan gauza arraro bat gertatu zitzaien eta zintzotu egin ziren. Azkenean bihoztarregana ez ziren joan gerra bila baizik eta adiskidetzera.

Etxe erraldoi bat ikustean, atea jo zuten eta Tuka atera zen. Orduan Perfek nagusia lehenengo aldiz belaunikatu egin zen hau esanez:

-Badakigu oso gaiztoak izan garela zuekin baina mesedez ez gaitzazue hemen kanpoan utzi bestela elurrarekin hil egingo gara eta gainera ez dugu janaririk. Gure hegazkintxoak gasolinarik gabe geratu da eta ezin dugu Tigrear planetara itzuli. Arren eskatzen dizuegu! Ez zaituztegu inoiz gehiago molestatuko baina utzi mesedez zuekin geratzen egiatan esaten dizuegu ez garela oztopo izango.

-Lasai asko sartu zaitezke, zuen etxean zaudete eta asko pozten naiz zuen hanka sartzeaz konturatzea.

-Mila esker benetan eskertzen dizuegu.

Eta hura izan zen tigrearrek zintzotu ziren eguna. Benetan pozgarria izan zen Madeleinen planak funtzionatu izana eta horregatik Tukak bere laguntzaile izendatu zuen. Ekarritako gauzak banatu egin zituzten tigrearrek eta bihoztarrek. Madelein benetan pozik zegoen egindako planarengatik. Etxe hark denetarik zuen: 648 gela, 12 piszina erraldoi, baratze txiki bat, tabernak, jangela izugarri bat, jolastokia... Ba al dakizue zergatik zegoen jangela bakarra eta ez beste 648? Zergatik izango da hori? Denak mahai baten inguruan elkartuta egoteko.

Hori Perfek nagusiak eta Tukak bakarrik dakite eta beren lana da sekretu hori beren lagunei ez kontatzea.

Oheak kotoizkoak ziren eta nahiz eta arraroa iruditu ez ziren inoiz puskatzen. Perfek eta Tua senar-emaztegai egin ziren eta neguko azkeneko gauean esan zieten beren herritar guztiei :

- Lehen mundu bakarra ginen eta eztanda baten erruz banandu egin ginen. Tigrear planeta eta Bihoztar planetak sortu genituen. Tigrearrok gaiztotu egin ginen eta baita itsutu ere diruarekin. Bihoztarrak beti bezain zintzo jarraitu zuten eta beraiek erakutsi digute nolakoak izan behar dugun. Beraiei esker hemendik aurrera zerbait izango gara bizitza honetan – esan zuen Perfek nagusiak – Horregatik eskatu nahi diot Tuka nire maiteari ea ezkondu nahi duen nirekin.

Guztiak hunkitu egin ziren Perfeken hitzekin eta Tukaren erantzunaren zain geratu ziren eta hauxe erantzun zuen:

- Nire erantzuna baiezkoa da eta ezkontza honen bidez berriz ere bi munduak elkartuko gara. Eskerrak eman beharrean nago nire Madelein lagun minari eta oraintxe pasako da nire laguntzaile izatetik egingo dugun mundu berriaren erregina izatera. Mundu berriaren izena Perfektua izango da. Izen hori jarri diogu gu bizitzeko leku perfektua izango delako guztiok batera.

Hala ere, beste arrazoi bat ere bada planetari Perfektua izena jartzeko. Perfek eta Tuak elkartuz Perfektuak osatzen zuten. Hala bazan ta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila gure lagun bhotzetan.

AMAIERA

